

## **KONTUEN BATZORDE ZENTSOREAREN TXOSTENA – EH BILDU FEDERAZIOA** **2019ko EKITALDIA**

### **AGINDUA:**

Txosten hau ematen da alderdi politikoen finantziarioari buruzko uztailaren 4ko 8/2007 Lege Organikoaren 15. artikuluan ezarritakoa betez. Honela dio artikulua horrek:

*“Alderdi politikoek barne-kontrolako sistema bat aurreikusi beharko dute, eskubide eta betebeharr ekonomikoen jatorrian dauden egintza eta dokumentu guztiak ikuskatu eta kontabilizatzeko aukera bermatzeko, beren estatutuekin bat etorriz. Auditoria horren ondoriozko txostena, Kontu Auzitegiari eman beharreko dokumentazioarekin batera aurkeztuko da.”*

EH BILDU federazioaren indarreko estatutuen 25. artikuluan jaso da agindu hori, non kontuen batzorde zentsorea ezarri den xede horretarako. Estatutuen agindu horrek kontabilitatearen kontrola eta ikuskapena gauzatzeko eskumena ematen dio batzorde horri, baita EH Bilduren baliabide ekonomikoen eta ondare-baliabideen eta alderdi horren gobernu-organoei gauzatzeko dituzten egintza ekonomikoen estatutu-legezotasuna zuzen erabiltzeko eskumena ere.

Kontuen batzorde zentsore hau ezarri zen, 2017ko ekainaren 17an EH BILDU Federazioaren I. Biltzarrean egindako estatutu-aldaketak onartu ondoren. Bozketa izendun bidez izendatu ziren batzordeko kideak, eta, hain zuzen, honako hauek izendatu gintuzten batzordeko kide: Iñaki Ostolaza Esnal, Lore Agirre Zipitria eta Beñat Amutio Aranceta.

Estatutuek ezarritako eginkizunak ditu batzorde honek, eta bere gain hartu beharko du eskubide eta betebeharr ekonomikoen jatorrian dauden egintza eta dokumentu guztiak ikuskatu eta kontabilizatzeko, baita Gobernu-organoei hartutako egintza ekonomikoak estatutuen arabera legezkoak direla ikuskatu eta bermatzeko ere.

Horregatik guztiatik, 8/2007 Legea eta EH BILDU Federazioaren estatutuen 25. Artikulua betez, eta 2017ko ekainaren 17an EH BILDU Federazioaren I. Biltzarrean egindako izendapenari jarraikiz, honako txosten hau ematen dugu:

### **2.019ko EKITALDIKO KONTABILITATEA FISKALIZATZEKO TXOSTENA**

#### **ARAU-ESPARRUA:**

Fiskalizazio-txosten hau idazteko, honako arau hauek hartu dira kontuan:

EH BILDU Federazioaren estatutuak.

8/2007 Lege Organikoa, uztailaren 4koa, alderdi politikoen finantziarioari buruzkoa.

5/1985 Lege Organikoa, ekainaren 19koa, Hauteskunde Araubide Orokorriari buruzkoa.

Alderdi politikoetara egokitutako Kontabilitate Plana.

## **AZTERTUTAKO DOKUMENTAZIOA:**

Bere eginkizuna garatzeko eta txosten hau idazteko, kontuen batzorde zentsore honek honako dokumentazio hau aztertzeko aukera izan du:

- Zuzenbideari lotuta egonik, lotura ekonomiko-finantzarioa duten dokumentuak.
- EH BILDU Federazioaren kontabilitate-liburuak.
- Saldoak eta bankuko egoera-orriak.
- Alderdiko gobernu-organismoek hartutakoak izanik, lotura ekonomiko-finantzarioa duten erabakiak.

## **FISKALIZAZIO, KONTROL ETA IKUSKAPENEN ERAGIKETAK:**

Fiskalizazio hau garatzeko esparrua zehazteko kontuan hartu behar da administrazioa Federazioaren administrazio-organoei dagokiela, organo horiek izanik aurrekontuen administrazio ekonomiko-finantzario arruntaren, diru-sarreraren kontrolaren, ondare-kudeaketaren eta kargudun publikoen erregimen ekonomikoen jarraipenaren arduradunak, baita urteko kontuak egiteko arduradunak ere.

Horrez gain, erregimen ekonomiko eta ondarezkoaren fiskalizazioa eta kontrola honako sistema honi jarraikiz egingo da:

Kontuen batzorde zentsore honek administrazio guztia auditatu eta ikuskatuko du, eskubide eta betebeharrak ekonomikoen jatorrian dauden egintza guztietan esku hartuko du, berrikuspenean egin ondoren txosten bat egingo du, eta kontuen fiskalizazio egokia bermatzeko behar diren gomendio eta doikuntzak ezarriko ditu.

Batzordeak, agindu zaizkion eginkizunak betetz, behin aurreko atalean aipatutako dokumentazio hori guztia eskura izan duenean, informazio guztia berrikusi du, datuak gurutzatuz eta kontrastatuz.

Honako alderdi hauei arreta berezia eskaini zaie:

- Eskubide eta betebeharrak ekonomiko guztiak kontabilitatean ongi islatu ote diren egiaztatzea.
- Kontabilitate-irratia Alderdi politikoetara Egokitutako Kontabilitate Planari jarraikiz egin ote den egiaztatzea.
- EUSKAL HERRIA BILDUTIK aztertutako kontabilitateak, Federazioaren egoera ekonomikoa ongi islatzen ote duen egiaztatzea.
- Harreman ekonomikoetan, EH BILDU Federazioaren estatutuetan eta araudi eta erabakietan ezarritakoa zenbateraino betetzen den egiaztatzea.
- Batzar Nagusiaren irizpen ekonomikoak zenbateraino betetzen diren egiaztatzea, biltzarren artean federazioko organo gorena den heinean.

- Indarreko legeak zenbateraino betetzen diren egiaztatzea, 7/2008 Lege Organikoari dagokionez nagusiki.
- Koalizioko ordezkari diren kargudun publikoentzat eta zuzendaritza-kargudunentzat ezarritako erregimen ekonomikoa betetzea.
- Bideragarritasun-planak eta kutxa-aurreikuspenak zenbateraino betetzen diren egiaztatzea.
- Zerga-betebeharrak zenbateraino betetzen diren egiaztatzea.

## **DIRU-SARREREI DAGOKIENEZ:**

EH BILDU Federazioak bi diru-sarrera mota dauzka: diru-sarrera pribatuak eta finantziario publikoko iturrietatik datozenak.

### *Diru-sarrera pribatuak*

EH BILDU Federazioak lortzen dituen diru-sarrera pribatuak, nagusiki, BILKIDEEN (federazioko militanteak) kuotetatik eta kargudun publiko batzuen ekarpenetatik datoz.

Batzorde honek ziurtatu duenez, BILKIDEEN kuoten diru-sarrerak modu zentralizatuan bideratu dira. Kuota horien kudeaketa eta ordainarazpena zuzenbideari jarraikiz gauzatu dira, eta Federazioaren estatutu eta erregelamenduetan ezarritakoa zorrotz betez.

Kargudun publikoen ekarpenei dagokienez, hori ere modu zentralizatuan gauzatu da, eta Legeak agindutako moduan kobratzen dira, xede horretarako irekitako kontu espezifikotan.

Zentralizazio horrek eraginkortasun-maila handia dakar berekin.

### *Diru-sarrera publikoak*

EH BILDU Federazioaren diru-sarrera publikoak dira erakunde publikoen eskutik datozenak, zehazkiago, Federazioak erakunde horietan duen ordezkariaren edo hauteskunde-emaitzen ondorio direnak.

Erakundeetako ordezkarietatik eratorritako diru-sarrerak, nagusiki, Legebiltzarreko, Batzar Nagusietako eta udaletako taldeen eskutik kudeatzen dira.

Funtzionamendu-gastuetarako diru-sarrera publikoak, horretarako jarritako kontuetan sartu dira.

Egindako hauteskunde-prozesuek (orokorrak, tokikoak, foralak) eragin berezia izan dute aurrean.

## **GASTUEI DAGOKIENEZ:**

Urteko gastuen aurrekontua, aurreikusitako moduan idatzi da, eta benetan egindako gastuak behar bezala onartu dira finantzatuko arduradunaren eskutik, ordaindu aurretik.

Ildo horretan, alokairu eta kontratu guztiak eta gainerako gastuak EH BILDUKO finantzetako arduradunaren eskutik behar bezala formalizatu direla ondoriozta dezakegu, federazioko zuzendaritzak onartutako kontratazio-oinarrietan ezarritakoa betez eta horri jarraikiz.

2019ko ekitaldiari dagozkion urteko aurrekontuak, EH BILDUREN mahai politikoaren eskutik onartu dira,

Hilean behin, finantzetako departamentuak Zuzendaritzaren esku jarri du aurrekontuko likidazioaren gaineko jarraipen-txosten bat, dagokion hilean hartutako betebeharren eta fakturen zerrendarekin batera.

Hala, Federazioaren kontrol eta ikuskapen ekonomikoen aurreikuspenak ongi bete dira.

Toki-erakundeei dagokienez, dagokien aurrekontua esleitu zaie, EH BILDUREN barneko erregelamendu eta estatutuetan ezarritakoari jarraikiz, eta aurrekontu hori beren kasa baliatzeko aukera izan dute. Erakunde horien gastuek jarraipen-prozedura bat ere izan dute, lurraldeko koordinatzaileen bitartez gauzatu dena.

## **ZERGA-KUDEAKETA:**

Foru Ogasunetik harremanak Finantzetako arduradunaren bitartez gauzatu dira.

Zergen aldizkako likidazioak telematikoki gauzatu dira, nahitaez horrela behar zuelako, eta ordainketak gauzatu dira Federazioak xede horretarako jarritako banku-kontuen bitartez.

Zehazki, eta aurreikusitako epeen barruan, alderdiak honako aitorten hauek aurkeztu ditu, honako eredu normalizatu hauetan :

- Langileen PFEZren atxikipenen 110 erdua.
- Alokairuen atxikipenen 115 erdua.
- Urteko Sozietateen gaineko Zerga
- Hirugarrenetik eragiketen urteko 347 erdua.
- Afiliatu eta kargudun publikoen kuoten 182 erdua.
- PFEZren urteko informazioaren 190 erdua.
- Alokairuen atxikipenen urteko informazioaren 180 erdua.

Eredu horietako gehien-gehienek zenbaki bera dute, baina kasu batzuetan alda daitezke dagokion Foru Ogasunaren arabera, eta formatua desberdina da Foru Ogasun bakoitzean.

## **ONDORIOAK:**

Egindako egiaztapen eta fiskalizazio-eragiketetatik, eta jasotako dokumentazioaren norainokoaren barruan, honako ondorio hauek atera daitezke:

Eskubide eta betebeharrak ongi islatu dira kontabilitatean.

Eragiketa ekonomikoak kontabilitatean islatu dira Alderdi Politikoetara egokitutako Kontabilitate Planari eta hartan bildutako irizpideei jarraikiz

Harreman ekonomikoetan, EH BILDU Federazioaren estatutuetan eta araudi eta erabakietan ezarritakoa behar bezala bete da.

Batzar Nagusiaren irizpen ekonomikoak ongi bete dira, biltzarren artean federazioko organo gorena den heinean.

Gure ustez, alderdi politikoen finantziarioari dagokion legerian ezarritako legezko betebeharrak ekonomikoak bete egin dira, bereziki 7/2008 Lege Organikoan araututakoak.

Koalizioko ordezkari diren kargudun publikoentzat eta zuzendaritza-kargudunentzat ezarritako erregimen ekonomikoa desadostasunik gabe bete da.

Bideragarritasun-planak eta kutxa-aurreikuspenak maila onargarri batean bete dira.

Zerga- eta gizarte-alorretako betebeharrak ongi bete dira.

Aztertutako dokumentazioaren arabera 2019. urteko kontuen barne-auditoria egin ondoren ondoriozta daiteke kontu horiek behar bezala islatzen dutela ekitaldi-itxierako egoera ekonomiko eta finantzarioa, eta batzorde honen ustez ez da beharrezkoa horietan inolako aldaketa esanguratsurik egitea.

## **GOMENDIOA:**

Behin txosten hau amaiturik, kontuen batzorde zentsore honi txosten hau egitea, eta kontuen fiskalizazio egokia bermatzeko behar diren doikuntzak eta gomendioak ematea dagokion heinean.

Kontua hartuz EUSKAL HERRIA BILDUREN egiturak eta kontrol-ereduak egintza guztien ikuskapen eta kontabilizazio egokiak bermatzen dituela, haren estatutuen arabera eta indarreko araudia betez, baina, hala eta gutiz ere, 2019ko ekitaldian hainbat hauteskunde-prozesu bildu direla, gomendatzekoa da batzorde hau indartzea eta horretarako mekanismoak ezartzea, litekeena delako etortzeko dauden ekitaldietan ere zenbait hauteskunde-prozesu aldi berean gertatzea.

Eta txosten hau ematen dugu, Donostian, 2020ko ekainaren 28an, Federazioaren zuzendaritza politikoak onar dezan, behin aztertu eta analizatu ondoren egokitzat jotzen badu, hori guztia alde batera utzi gabe Kontuen Auzitegiari soilik dagokiola alderdi politikoen jardura ekonomiko eta finantzarioa kontrolatzea.

**KONTUEN BATZORDE ZENTSOREA**